

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5236

AGINDUA, 2012ko azaroaren 13koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuarena, udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalaren dokumentuaren diseinu eta oinarrizko ezaugarriei buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen Erregistroa eta Udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalerako sistemak arautzen dituen 2012ko urriaren 16ko 203/2012 Dekretuaren 9. artikulua Euskadiko udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalaren dokumentua arautzen du.

Bederatzigarren artikulua horren laugarren atalak aurreikusten duenez, akreditazio profesionalaren dokumentuaren diseinu eta oinarrizko ezaugarriak segurtasun publikoaren arloan eskumena duen sailaren titularrak ezarriko ditu, agindu baten bidez.

Horregatik guztiagatik, agindu honen bidez udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalaren dokumentuaren ezaugarriak, diseinua eta osagaiak arautu nahi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordeak aldeko txostena eman ondoren.

Esandakoaren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen bidez, udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalaren dokumentuaren ezaugarriak, diseinua eta osagaiak arautu nahi dira.

2. artikulua.– Osagaiak.

1.– Akreditazio profesionalaren dokumentua honako hauek osatzen dute: txartel profesionalak; plaka-ikurrak; eta agiriak eramateko zorro trokelatuak.

2.– Akreditazio profesionalaren dokumentuaren osagaiak batera eta inor ordeztuko batere aukerarik ez dagoela bermatzen dute dokumentuaren titularrak agintaritzako agentea dela, udaltzaingoko kidea denez gero. Txartel profesionala eta plaka-ikurra dokumentu publikoak dira, titularrak bakarrik erabili ditzake eta ezin zaizkio beste inori eman.

3.– EAEko udaltzaingoetako kide guztiek, alegia, segurtasun-zerbitzuen eremuko lanpostuetan zerbitzu aktiboan, bigarren jardueran edo zerbitzu berezietan daudenek, akreditazio profesionalaren dokumentu bat izango dute, eta dokumentu hori erabili ahal izango dute.

3. artikulua.– Diseinua eta ezaugarriak.

1.– Txartel profesionalaren diseinua eta ezaugarriak agindu honetako I. eranskinean azaltzen dira.

2.– Eta, plaka-ikurraren diseinua eta ezaugarriak, II. eranskinean.

3.– Udaltzaingoko kidegoen identifikazio profesionaleko txartela eta plaka-ikurra kokatzeko dokumentuak eramateko zorroaren deskribapena agindu honen III. eranskinean agertzen da.

4. artikulua.– Berritu, ordezkatu eta kentzea.

1.– Akreditazio profesionalaren dokumentua kasu hauetan berritu edo ordezkatu da:

a) Dokumentuan inskribatuta dagoen iraungitze-eguna iristean, betiere ordezkatu edo baliogabetu den dokumentua entregatu ondoren.

b) Dokumentua puskatzen, galtzen edo lapurtzen bada (aurrez behar bezala justifikatu behar da).

2.– Iraungitze-data iristeagatik edo beste edozein arrazoiengatik gertatzen bada berritu beharra, entregatu egin behar da ordezkaturako edo baliogabetutako dokumentua.

3.– Identifikazio profesionalerako dokumenturen bat suntsitu, galdu edo lapurtzen bada, titularrak bere udalari hala jakinarazi beharko dio, idatziz, eta udalak udaltzaingoen koordinaziorako eskumena duen zuzendaritzari dokumentu berri bat egiteko eskatuko dio. Horrelakoetan, dagokion salaketaren kopia bidali beharko da, eta hor xehe-xehe adierazi beharko da nola gertatu den suntsiketa, galtzea edo lapurreta.

Suntsiketa edo galtze kasuan tartean zabarkeria larria bada, funtzionarioak ordaindu beharko du dokumentu berria ematearen kostua.

4.– Udaltzaingoko funtzionario izateari utziz gero edo segurtasun-zerbitzuen eremuko zerbitzu aktibo edo bigarren jardueratik bestelako administrazio-egoeraren batera edo zerbitzu berezietara pasatuz gero, dokumentazio profesionala entregatu beharko da.

Horrelakoetan, dagokion udalak dokumentua kentzeko akta beteko du, eta horren berri emango dio udaltzaingoen koordinazioaren arloko eskumena duen zuzendaritzari; halaber, kendutako akreditazio-dokumentua entregatu egingo du.

Hilez gero, dagokion udalak hildako udaltzainaren senitartekoei eskatuko die akreditazio-dokumentua entregatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen Erregistroa eta Udaltzaingoko kideen akreditazio profesionalerako sistemak arautzen dituen 2012ko urriaren 16ko 203/2012 Dekretuaren xedapen iragankorra betez, udaltzainen akreditazio profesionalerako dokumentuak, udalek agindu hau argitaratu aurretik eman badituzte, araubide berriarekin bat etorritik berritu beharko dira, agindua argitaratu eta hamazortzi hilabeteko epean, salbu eta dokumentu horiek Udaltzaingoak eta Segurtasun Pribatua Koordinatzeko Zuzendaritzak egiten baditu, ekitaldi honetan, eta araubide horretako baldintzak eta ezaugarriak betetzen badituzte.

AZKEN XEDAPENA



Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 13a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioeko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

2012ko azaroaren 28a, asteazkena

I. ERANSKINA

IDENTIFIKAZIO PROFESIONALERAKO DOKUMENTUAREN DISEINUA ETA
EZAUGARRIAKERAIKITZE-ESKEMA
(NEURRIAK MILIMETROTAN)AURREALDEAATZEALDEA

2012ko azaroaren 28a, asteazkena

II. ERANSKINA

PLAKA-IKURRAREN DISEINUA ETA EZAUGARRIAK

AURREALDEAATZEALDEA

53,8

53,8

85,6

